AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2026-11-06 / 918 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Arimen gaua sendotzen ari da urtez urte

Andoainen eta Urnietan Gau Beltzaren edizio berria egin zen. Dagoeneko udalerri gehienetara zabaltzen ari da euskal ohitura zaharra / 7-10

AIURRI

Mendi Astea, Andoainen

Azaroaren 13an hasita, hitzordu-sorta iragarri du Euskalduna Mendigoizale elkarteak / 11

Omenaldi sentitua egin zioten Ander Elustondo Esteban Urnietako eskubaloi jokalariari / 12

Ikasle gehiagok egin dute bat asteazkenero egin ohi den Ibili Andoain ekimenarekin / 13



Euken Garmendia, Urnietako EH Bilduko alkategaia

Urnietako Mahai Politikoaren proposamena izan da, orain arte egindako bideari jarraipena eman diezaion

Erredakzioa URNIETA

Euken Garmendia Martinez alkategai izatea proposatu du Urnietako Mahai Politikoak. Hala, 2023an egin bezala, 2027ko udaberriko udal hauteskundeetan ere alkatetzarako aurkeztuko da. Aste honetan egin dute bilera-irekia Urnietan eta, ordu gutxira, iritsi da iragarpena.

Ildo horretan, jarraipena eman nahi dio koalizioak orain arte egindakoari: "Urnietako Mahai Politikoak Euken Garmendia Martinez proposatu du orain arte EH Bilduren proiektuari egin dion ekarpenagatik. 2023. urteko udal hauteskundeetan zerrendaburu zela, talde subiranistak babes zabala izan zuen. Handik urtebetera egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bildu lehen indarra izan zen, udalerrian ezkerreko subiranismoaren goranzko tendentzia finkatuz. Oso ongi ezagutzen du Eukenek herria eta ongi konektatzen du bertako eragileekin. Eta hori ezinbestekoa da EH Bilduren proiektua gauzatzeko".

"Urteotan erakutsi duen konpromisoa" giltzarri izan da Mahai Politikoak Euken Garmendiaren aldeko apustua berresteko.

Dagoeneko, beraz, Urnietako bi alderdi nagusien hautagaien izenak ezagutzera eman dira.



Euken Garmendia, udaletxeko balkoian. EH BILDU

Bideorria aurkeztu dute

Euskal Herriko Gazte Feministok ekimenak deituta, 200 gaztetik gora elkartu zen "Hemendik. Borrokak ibilerarik badu, hau da gurea" jardunaldira. Hernanin izan zen, aurreko larunbatean



Biteri Kultur Etxeko aretoa bete zuten. EHGF

Erredakzioa URNIETA

"Egun berezia eta mugarri garrantzitsua izan da gaurkoa Gazte Feministontzat eta ezin indartsuago eta alaiago irten gara gaur Hernaniko aretotik. Orain herrietan lan handia egitea dagokigu!", adierazi zuen mugimenduak jardunaldia amaitu berritan. Urriaren 31n elkartu ziren, goizez, txostenaren aurkezpenarekin. Bazkarian ehunka lagun elkartu zen eta, segidan, ospakizun giroko ekitaldiak kateatu ziren. Emanaldi akustikoa eta DJ La Fulanaren saio ibiltaria.

Ospakizuna eta hausnarketa, biak uztartu zituzten, prentsara igarrotako oharrean irakur daitekeenez: "feministentzat ezinbestekoak dira eztabaidak, hausnarketa kolektiboak eta eguneroko lan militantea; beti izan direla, baina orain, are gehiago, ideia askatzaileak, etorkizuna eta oraina bera lapurtu nahi dituzten garai honetan. eztabaida, hausnarketa eta lan militante horren emaitza da Euskal Herriko Gazte Feministen bideorria. Urtez urte biderkatu dituzten borrokak eta eraldatu dituzten estrategiak jasotzen ditu: mugimenduan bizi baita feminismoa, bidean egiten baita".

Nondik datozen oroitzeko, baina batez ere, beren bidea zein den argitu eta nora doazen definitzeko lanketa egin dute. Hala, feminismoa sakontzea xede dute: "Euskal Herriko Gazte Feministen bide-orriak antolakuntza feminista Euskal Herriko oholtza, bilera-gela, gaztetxe, asanblada eta piketeetara eramateko helduleku izan nahi du. Herriz herri eta auzoz auzo antolatzen diren gazte feministentzako euskarri gisa baliatuko dute, Euskal Herria Feminista eraikitzen jarraitzeko".

"MUGIMENDUAN BIZI DA FEMINISMOA, BIDEAN EGITEN BAITA"

EHGF MUGIMENDUA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA
Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea



AIURRI

Leitz Kirol eta Kultur Elkartearen 25. urteurrena

Andoaingo Txirrinduzaleen ekimenak 25 urte bete ditu aurten. Efemeridea baliatuta, aurreko larunbatean, Gaztañaga sagardotegian egin zuten hitzordua. Aspaldi ikusi gabeko lagunekin egoteko aukera paregabea izan zen gehienentzat. Aiurri.eus gunean Aitor Larrañaga, Andoni Galindo, Jokin Makatzaga eta Mikel Bergara kideen adierazpenak aurki daitezke.

Denbora tarte guztian mendi-bizikletarako zaletasuna sustatu du elkarteak, batik bat, eta makina bat ekimen eta irteera antolatu ditu urtetan. Guztietan, ziurrenik, ezagunena da Iruñea-Andoain txangoa. Leitz elkartearen barruan abian jarritako mendi-bizikleten atalak indartsu jarraitzen du geroztik, eta urrutira gabe, larunbatean bertan Leitzarandik txangoa egin zuten hainbat kidek.



Aurreko astean bilera egin zuten Arrate pilotalekuko bilera-gelan. GREBA KOMITEA

Greba Komiteak azaroaren 11ra begira lanean ari dira

Aste honetan bilera berriak deitu dituzte Urnietan eta Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Etxebizitza-greba dela eta, herriz herri lanean ari dira greba deitzaileak. Aste honetan bilera berriak deitu dituzte Urnietan (astelehenean) eta Andoainen (ostegunean). Aurreko astean, Andoaingo Greba Komitean, bi hitzordu nagusi iragartzea adostu zuten. Hala, Donostian deitu duten manifestaziora joateko deia luzatuko dute. 12:30ean hasiko da Pio XII plazatik. Arratsaldean, aldiz, hitzordua Andoainen izango da. Mobilizazioa 17:30ean abiatuko da Goikoplazatik.

Urnietan bertan ere ekitaldiren bat egitekotan dira han sortutako komiteko kideak.

Deitzaileak hitzorduari ahalik eta erantzun zabalena, indartsuena eta bateratuena emateko lanean ari dira, eta asmo horrekin egin du greba orokorrerako deia. Nagusiki, pobretzearen eta errentismoaren aurka, Euskal Herrian etxebizitza eta soldata duinak behar direla aldarrikatuko dute.

Deitzaileen artean, LABek honakoa adierazi du: "etxebizitza langileak pobretzeko eta prekarizatzeko arrazoi nagusia bilakatu da, baita aberastasunaren banaketa bidegabea areagotzeko modua eta arrakala sozialetan sakontzekoa ere".

Etxebizitza eskubidea defendatzen du, bestalde, Etxebizitza Sindikatuak: "etxebizitzak negozio izateari utzi eta guztiontzako eskubide bermatua izan behar duela aldarrikatu nahi dugu".



AIURRI

Partaidetzazko aurrekontuak

Urnietako Udalak sustatu duen aurrekontu irekien partaidetza prozesua bozketa fasean izan zen aurreko astean. Hala, herritarren zalantzak eta galderak argitzeko nahiz botoa eman ahal izateko, informazio-gunea jarri zuten aurreko ostiralean. Udalak adierazi zuenez, "herritar ugari gerturatu ziren partaidetza prozesuaren informazio karpara".

Hauteskunde Orokorrak

Jakina denez, Espainiako Kongresua eta Senatua berritzeko bozak deitu dituzte azaroaren 29rako. Legeak ezarritako epealdian, Andoainen eta Urnietan, hauteskunde-mahaien osaketa egin dute. Dagoeneko Andoain.eus eta Urnieta.eus guneetan ageri dira zerrendak.



AIURRI



Martin, Nafarroa Plazan dagoen Ganbara tabernako barran. AIURRI

"Tabernariarena lanbide liberala da, baina ordu asko dira barran"

MARTIN MARTIN ANDOAINGO GANBARA TABERNA

Andoainen, ostalaritzan, urte gehien daraman tabernaria izango da ziurrenik. Iaz, esaterako, hiru hamarkada bete zituen Ganbara tabernaren ardurapean

Xabier Lasa ANDOAIN

Ostalaritzan urte gehien daraman tabernaria izango da Martin Martin Tapia (Andoain, 1967). Tabernarien gora-beherez, herritarren ohitura-aldaketez, ostalaritzaren iraganaz eta etorkizunaz... mintzatu da Aiurrirekin.

Gogoratzen al zara noiz eta nola ireki zenuen Ganbara taberna?

1995eko abenduaren 28an izan zen, inozente egunean! Ederki kostata izan zen, ze lehenago irekitzea aurreikusita neukan, baina gauza bat zela bestea zela, azkenean, behintzat, ostalaritzan diru-sarrera garrantzitsua ohi den Urtezahar gauerako iritsi ginen. Leher eginda iritsi nintzen egun horretara, eta batik bat, argazki bat geratu zait gogoan itsatsita: barran beste hiru lankidek jada egoera kontrolatzen zutela ikusita, bazter batean eseri, eta jende-zaratatik bakartuta, hasperen sakon bat eginez, barru-barrutik "azkenean ireki ahal izan dut!" oihua irten zitzaidan.

Ordurako bazeneukan eskarmentua tabernari gisa, ezta?

Hamar bat urte bai! 20 urterekin hasi nintzen, Karmelo Marzolen eskutik, Kurkutxen; berak erakutsi zidan ofizioa hantxe. Ordurako, asteburuetan-eta, diskojartzaile aritua nintzen zenbait tabernetan (Kurkutx, Vaticano, Lanbroa, Anayak...), eta berak tentatu ninduen, behin. Berarekin urte bakar batzuk eginda, Getarian lehengusu baten negozioan (taberna, jatetxea, hotela...) aritu nintzen. Hura utzi, eta 1988an, Carlos Estevezek, Kale Berriko Julian taberna zena hartu eta Txuri Beltz ireki zuela-eta, harekin makina bat urte egin nituen. Hori Ganbararen egitasmoari ekin nion arte izan zen.

Zerk eraginda heldu zenion ostalaritzari?

Berez, garai hartan nire asmoa Mediterraneora abiatzea zen, ostalaritzatik eta laranja-bilketatik bizimodua ateratzeko asmoz. Nire amak (Juli Tapia), ordea, ez zuen ondo ikusten bere semea urrun joatea. Dendaria zen orduan ("Juli mertzeria" denda zeukan berak, Pio Baroja kalean), bazekien zer zen jendaurreko negozio bat aurrera eramatea, eta animatu egin ninduen bertan taberna bat irekitzeko. Berak topatu zidan Nafarroa plazan salgai zegoen lokala, egin kontu! Esango nuke hiru bat arrazoik bultzatu nindutela Ganbararen abentura horretan sartzera: amaren kemenak, pilatuta neukan eskarmentuak, eta, jakiteak taberna bat bizimodua ateratzeko bidea izateaz gain musika-espazioa izan daitekeela. Izan ere, tabernaritzat baino gehiago, musika-jartzailetzat baineukan nire burua, musika zale amorratua beti izan naizen aldetik.

Zuzeneko musika, Ganbararen ezaugarrietako bat izan da hiru hamarkadetan.

Jakina, taberna diseinatzerakoan zeozer argi eduki banuen, tabernak eszenario moduko espazio bat behar zuela eduki izan zen hori; aisialdi-gune eta topagune ez ezik, kultur-gunea ere izan behar zuela tabernak, alegia. Argi dago kultur ekitaldi batek ez duela estaltzen egindako inbertsioa taberna batean, ez orduan eta ez orain. Baina ez baduzu nahi zure establezimendua edaritegi huts bat izatea, egin behar duzu apustu hori; plus bat ematen dio lekuari, ospe bat...

Egundoko luxua da niretzat talde bat zuzenean ikustea, berdin zait ze estilokoa izan, rocka, popa, jazza.... Hori bai, formatu txikiez ari naiz; beste gauza da makrokontzertuen dinamika hori, ez didana erakartzen batere. Esate batera, Donostiako Altxerrira joan eta han jazz talde bateko instrumentistak aurrez aurre edukitzea, hori egundoko plazera izaten zen niretzat gaztetan.

Pentsamendu horri helduta, betitik saiatu izan naiz kontzertuak, antzerkiak, artisten perfomanceak... erakartzen, jendeari eskaintzen. Alde horretatik, enpeinu handia jarri nuen lokal guztia ondo intsonorizatuta gera zedin.

Aurreneko urtetan, saiatu nintzen astegunetan ere kuturprogramazioa antolatzen. Egia da urteen poderioz, kosta egiten dela hasierako dinamikari eustea; iaz, 30 urteurrena zela-eta ohi baino kontzertu-kopuru

handiagoa izan zen, baina ezin uka badaukala eragina urteen joanarekin pilatzen ari zaidan neke pertsonalak.

Kultura sustatzea aipatu dugu, baina Ganbara saskibaloiaren sorreran eta ibilbidean ere, atzean egon da beti taberna.

Kirol guztiak izan ditut gogoko betidanik, eta gogoratzen naiz 1997an edo, nola etortzen ziren saskibaloi zale batzuk tabernara. Behin, komentatu zidaten elkar berotu egin zirela, saskibaloi talde bat sortzea erabaki zutela; ea lagunduko al nien. Ordurako bazebiltzan La Salleko gaztetxo batzuk jokatzen, baina maila desberdinak jorratuko zituen klub baten beharra ikusi zuten. Andoainen futbola eta eskubaloia zebiltzan orduan indartsu, eta, "zergatik ez eman bultzada eskubaloiari, Andoainen?", pentsatu nuen nire artean. Era horretan, tabernarekin diruz laguntzea erabaki nuen. Hori bai, taldeak hamarkadetan aurrera egin badu, eta herrian errotu bada, Angel Gonzaloren ahaleginari esker izan da.

Nekea aipatu duzu lehen.

Bai, noski! 40 urte barra batean atzean, neke fisiko eta psikologikoa eragiten du, nahiz izan munduko bokaziorik handiena eduki. Lanbide liberala da tabernariarena, ez duzu meategi batera joan behar goizean goizetik, baina ordu asko dira barran, eta nire kasuan, bi eskuetan artrosia jasaten dut eta tarteka edalontziak erortzen zaizkit, entzumenetik ere ez nabil fin, bizkarra eta belaunak ere kexaka dauzkat aspalditik...

Kotizazio urte mordoa egin dut, baina apur batzuk geratzen zaizkit oraindik. Ez dakit legeak nolakoak izango ditugun jubilazioaren gaian epe motz-ertainera, politikoki datorkiguna ere nahiko iluna dela baitirudi...

Iraganari begira jartzen bagara berriro, derrigor aipatu behar Andoaingo goialdea nola egon zen "modan", Ganbararen haserako urte haietan...

Ez da erraza esplikatzen zergatik izan zen "boom" hura, 1995 aldera hasi eta gutxi gora behera 2003a arte iraun zuena. Inguruko herrietako gazte ugarik (baita Beasain edo Zarautzetik ere!) goi parte horretako tabernetara joateko ohitura hartu zuen, eta gauza harrigarria ere gertatu zen: herriko behe parteko (Kale Nagusia, Zumea kalea, Kaleberria...) ohiko bezero asko ere "gora igotzera" animatu ziren! Hori bai izan zela miraria, jakinda, historikoki, Andoain nola egon den banatuta bi eremu fisikoetan gau-giroari dagokionez batik bat. Portzierto, beste herrietan gertatzen ez den fenomenoa da hori.

Faktore ugari batu zirela esango nuke fenomeno sozial hori gerta zedin: espazio labur batean pilatzea hainbeste taberna nahiko berriak zirenak (Vaticano, Aker Beltz, Azken, Sua, Kurkutx, Ganbara...), gaueko ordu txikietan ordutegi malgua edukitzea, horietako batzuk musika-diskoko toki propioak edukitzea eskaileretan behera joanda... Igual ez dagokit niri esatea, baina Txuri Beltzeko bezero asko ere nire eraginez igo zirela esango nuke.

Eta halako batean, kito egin zuen gau-mugimendu hark.

Dena aldatzen den bezala mundu honetan, gizarte arauak, ohiturak... Kasu horri dagokionez, esango nuke alkoholemia kontrolek zerikusi handia izan zutela gaueko ohituren aldaketan. Jaiotze-tasaren jaitsierak eduki zuen eragina ere aipa genezake. Izan ere, matematika hutsa da: gure garaietan, herriko ikastetxeetan, 40-50 bat ikasle pilatzen ginen bi ikasgeletan, ikasturte bakoitzeko; gaur egun, erdira ere ez dira iristen ikasgelak. Bestalde, ez da ahantzi behar Zumea inguru guzti horretan eraiki izan diren etxebizitzak; gazte jendea jarri zen bizitzen hor.

Ohitura aldaketak, aipatu dituzu. Nola ikusten dira, taberna barraren bestaldetik?

Ordutegia asko aldatu da, lehen esan bezala. Europako hainbat herrialdetako ohituretara bideratu gaituzte arauekin eta legeekin, dena goiztiarrago egitera, eta gauekoa ere aldatzen ari da. Ganbarako bezeroa 40 urtetik gorakoa da, eta horientzat garrantzia hartu du eguerdiko bermutak, arratsaldekoan lagunekin geratzeak, herritik kanpo ateratzeko autoa ez hartzea... Azen aldian, eguerdietan jarri izan ditugu kontzertuak, eta jendea txukun erantzuten du.

Izugarri aldatu da tabernetan entzuten den musika ere...

Abaniko zabala sartu genezake musika latinoaren etiketaren pean, eta gogoko ditut hainbat erritmo, orain gogora datozkidan saltsa, bachata, Ruben Blades, soul kubatarra... Oso interesgarria ere izan zen Manu Chaoren eskutik heldu zen mestizaiaren mugimendu hura ere. Baina badirudi regetoiak dena irentsi duela, ez dago besterik! Faltan ikusten dut iraganean egon zitekeen musika aniztasuna tabernetan, nahiz eta estilo edo musikari batzuek merkatu komertzialeko pastelaren zati handi bat jatea, hori betiko kontua izan. Klasikotzat joko naute, baina betikoari eusten diot; Ganbarara datorrenak ondo daki ez duela regetoirik edo antzekorik entzuteko aukera edukiko.

Nola ikusten duzu ostalaritzaren etorkizuna Andoainen?

Ez oso modu itxaropentsuan. Ganbara ireki nuen garaian, Andoainen igual ehun tabernetara iritsiko ginen; gaur, erdira jaitsita dago kopuru hori. Ematen du ondoen egiten duenak iraungo duela etorkizunean. Antzekoa esango nuke herriko merkatariengandik. Min izugarria egin die azken urtetan altxa diren saltoki handiek zein online erosteko ohiturak, eta askok nahikoa daukate iraunbizitzearekin.



"Ganbara ireki nuen garaian, Andoainen igual ehun tabernetara iritsiko ginen; gaur, erdira jaitsita dago kopuru hori". AIURRI

"EGUNDOKO LUXUA DA NIRETZAT TALDE BAT ZUZENEAN IKUSTEA, BERDIN ZAIT ZE ESTILOKOA IZAN"


Mingo Fisuras taldea, iazko urtarrilean. AIURRI



Consuelo Frutos, Eli Etxezarreta, Tere Lasarte, Josune Zubeldia eta Ana Rozas, Kafe Zaintzaileak. Joxpi Lasa falta da, ezin izan zuen azaldu aurkezpenera. AIURRI



Kafe Zaintzaileak, mahai inguruan parte hartu zuten Peio Urretabizkaia Kontxi Albisu eta Maria Jesus Arrospiderekin. AIURRI

Kafe Zaintzaileen aurkezpena Urnietan

Urnietako zaintza ekosistema izan zuten hizpide Lekaion urriaren 27an egin zituzten jardunaldi irekietan. Bertan, herrian sortu berri den Kafe Zaintzaileen taldeak bere burua aurkeztu zuen

Xabier Lasa URNIETA

Josune Zubeldia, Eli Etxezarreta, Tere Lasarte, Consuelo Frutos, Ana Rozas eta Joxpi Lasak jarri dute abian Kafe Zaintzaileen taldea. Zaintza arloan identifikatu den erronkarik handienetarikoari, bakardadeari alegia, modu xumean erantzuteko jaio dela herritarren taldea, azpimarratu zuten aurkezpenean.

"Hitz egiteko, elkar entzuteko era lagundua sentitzeko espazioa bat" sortu nahi duela taldeak, adierazi zuten.

Lekaion egin zuten aurkezpenean, herritarrei "topaketa informal baterako" gonbidapena luzatu zieten; hain zuzen, kiroldegiko erabilera anitzeko gelan, azaroaren 22an, 17:00etatik 19:00etan jarri dute hitzordua. "Giro lasaian hitz egiteko" espazioa nahi dute sortu, "epaitu gabe entzunak sentitzeko, esperientziak partekatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko". Kafe baten inguruan konfiantza-giroa eta konplizitatea sortzea errazago dela sinetsita daude, eta horrexegatik hautatu dute formula hori.

Leku lasai eta segurua sortzea da beren asmoa. "Hitz egiteko ez ezik entzun gaitzaketen tokia izatea nahi dugu. Lasaitasunez joan, presarik gabe, eta denbora hartu besteei eskaintzeko; denbora "oparitu" besteei. Hori bai, inor juzgatzeko asmorik gabe, zure ekarpena eginez, bestea ulertuz...".

Zeintzuk izango diren mahai horretako mintzagaiak ere, zehaztu nahi izan zuten: "aurrez ez dugu gairik ezarriko; bertara gerturatzen direnek proposatuko dute, eguneroko bizitzako kontuak, kezkak, sentimenduak... Gogoa daukanak hitz egingo du, ez daukanak ere isilik gera liteke, eta besteei entzun".

Espazioa pertsona guztientzat irekita dagoela ere gaineratu zuten, "izan adinekoa, gaztea, zaintzailea, bizilaguna eta partekatzeko edo entzuteko gogoa duen edonor, denek eduki dezakete tokia ekimenean".

Gauzak horrela, azaroaren 22a, igandearekin, jarri dute lehenbiziko hitzordua. Hileroko hitzordua jarri dute oraingoaz, baina aurrera joan ahala, eta jasotzen duten erantzunaren arabera, maiztasun hori aldatzeko prest agertu zen taldea.

Bakardadea, hizpide

Bestalde, Lekaioko jardunaldi irekietan, Euskadi Lagunkoia egitasmoko Andrea Pozo teknikariak hartu zuen hitza. Euskadiko herri eta auzoak pertsona guztientzat -bereziki adinekoenentzat- gero eta atseginagoak, irisgarriagoak eta bizigarriagoak egitea helburu du Euskadi Lagunkoia ekimenak, Eusko Jaurlaritzak eta Matia Fundazioak elkarkidetzan bultzatuta.

Ondoren, Urnietako lau herritarrek, Peio Urretabizkaiak (Muazpiko harakina), Kontxi Albisuk (Loratu Memoria taldeko kidea), Laura Martinezek (erresidentziako zaintza arloko boluntarioa) eta Maria Jesus Arrospidek (Caritaseko boluntarioa) beren bizipenak kontatu zituzten, bakartasuna eta elkarrekiko laguntza hizpide hartuta. Lauek ere partekatu zuten ideia nagusia, zera izan zen: hurkoari laguntzen diozunean, eman ez ezik jaso ere egiten duzula, eta horrek, gizaki gisa, aberastu egiten zaituela pertsona bezala".

Zabalduz ekimen sozialeko kooperatibako Katrin Etxebeste teknikariak gidatu zuen zaintza ekosistemaren gainean Lekaion ekitaldia. Urnietako udalean bakardadearekin lotutako zaintza planaren barruan lanean ari den Zaintza Mahaiak antolatu zuen; bakardadearen gainean gizartea sentsibilizatzea eta kontzientzia lantzea izan zuen helburu ekimenak.

Urnietako udala



Etxeberri plazatik abiatu ostean San Juan plazan amaitu zen kalejira. AIURRI

Gau Beltza gailendu zen Urnietan

Salestarrak Magale ikastetxeak antolatuta, Gau Beltzaren edizio berria egin zen Urnietako kaleetan. Aurreko asteetan egindako lanketaren ondorioz, kalejira musikatua eta antzezpena egin zuten urriaren 31n

Xabier Lasa URNIETA

200 laguneko taldea izan zen orotara, LHko eta DBH 1-2 mailatako ikasleak, irakasleak eta boluntarioak zenbatuta. Arratsaldean elkartu ziren Etxeberri plazan eta handik abiatu ziren San Juan plazara. Ikusminak erakarritako ikusle ugari bildu zen ibilbidearen alde banatan. San Juan plazara iritsita, ikasleek dantza saioa eskaini zuten, eta aurreko egunetan egoitza desberdinetan egin dituzten bisitetan jasotako espiritu gaizkileak sutara botatzeko errituala bete zuten. Izan ere, iragarri bezala, Urnietako Gau Beltzaren sustatzaileak Hernaniko adinekoen egoitzan, Urnietako Eguneko Zentroan eta Donostia Ospitalean izan ziren aurreko egunetan. Arimen gaian, San Juan plazan, festa betean izan ziren: batukada, gaztainak, txokolatea, beldurraren tunela... Seigarren edizioa ere bikaina izan da.



Kalejira girotu zuen perkusio-jole taldea. AIURRI



LHko eta DBHko ikaslez osaturiko kalejiran 200 lagunek parte hartu zuten. AIURRI



Ikasle taldea, kalejirari ekiteko prest. AIURRI



Gaztainak erre zituzten San Juan plazan. AIURRI



Argazki-bilduma zabalagoa Aiurri.eus gunean aurki daiteke. AIURRI



Urki dantza taldeak emanaldi ikusgarria egin zuen Goikoplazan, eguna ilundu orduko. AIURRI

Beste behin ere jendetsua izan zen Andoaingo Gau Beltza

Urriaren 31 larunbata izanik, arratsaldetik hasita, jende andana ibili zen Goikoplazan eta inguruetan. Ludotekak eta Gazte Lokalak antolatutako tailer eta jolasekin hasi eta, gauerditik gertu, Zutik elektrotxarangaren doinuekin amaitu zen ospakizuna

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko larunbatean Arimen Gaua ospatu zen Andoainen, euskal giroko ohitura zaharra biziberrituz horrela. Jendetsua, parte-hartzailea eta askotariko eragilek antolatuta izan zen. Auzolanari esker egiten da Andoaingo Gau Beltza, ordu gutxiko tartean, ekitaldiak bata bestearen atzetik egin ahal izateko ezinbestekoa dena.

Ludotekak eta Gazte Lokalak eman zioten hasiera ospakizunari, aurpegi margoketarekin eta hainbat jolasekin. Segidan iritsi zen txokolate beroa banatzeko unea. Bitartean, mozorro lehiaketa martxan zen Goikoplazan. Lehen edizioa izateko hautagai ugari agetu ziren. Segidan, ikuskizunari hasiera eman zioten. Maizorrikoek ekin zioten saioari eta haien atzetik, bata bestearen atzetik, herriko aktoreen antzezlana, Urki dantza taldearen emanaldia eta Asier Burgueteren konpainiaren ikuskizuna. Ikusleak aho bete hortz uzteko moduko ikuskizuna izan zen Goikoplazakoa. Kalejiran jaitsi ziren Kale Nagusirantz eta, hara iritsi aurretik, Plaza Morean ziren Sorgina eta Basajaun erraldoiak. Aurrerago, Irunberri elkartean, Beldurraren pasabidea. Bertatik igaro ziren ausartek saria zuten irteeran: gaztain erreak.

Etxeberieta plazan prest zegoen jaialdiaren bigarren atala. Talojatea, 250 lagunentzat, mozorro lehiaketaren eta kalabazaren pisua asmatu zutenen sari banaketa ekitaldia, Lebiren zezensuzkoa eta Zutik elektrotxarangaren irteera. Ekitaldien zerrenda ikusita, lau orduko tartean hainbeste jarduera batera egiten diren ospakizun gutxi. Andoaingo Gau Beltzan aspertzeko tarterik ez da!

Bideo-sorta, ikusgai

Antzezlana, dantza emanaldia, Akerrak Okerrak ikuskizuna, Etxeberrieta plazaren ospakizuna, mozorro eta kalabaza lehiaketen sari banaketa ekitaldiak... Aiurri.eus webgunean Andoaingo Gau Beltzaren bideo-sorta ikusgai dago.

Haurrak eta familiak erretiratzen hasi zirenean, Zutik elektrotxarangak Zumea plazan eta Kale Nagusian ospakizuna zabaldu zuen. Haien atzetik dozenaka lagun joan ziren kantuan eta dantzan.

HAINBESTE JARDUERA BATERA EGITEN DIREN OSPAKIZUN GUTXI DIRA



Herriko antzezle taldeak Gau Beltzaren muinean murgildu gintuen. AIURRI



Andoaingo erraldoi berrienak Plaza Morean ikusgai izan ziren. Familia askok argazkiak ateratzeko aukera baliatu zuten. AIURRI



Saio ikusgarria egin zuten Goikoplazan A&B Shows konpainiako kideek. Handik kalejiran abiatu ziren Etxeberrieta plazaraino. AIURRI

Elkarteen ezinbesteko laguntza



Txokolatea berotu zuen lantaldea, Batzokian. AIURRI

Gau Beltzaren ekitaldi gehienetan ezinbestekoa da elkarte gastronomikoen laguntza. Bazkalostean hasita, Batzokia elkartean ehunka lagunentzat txokolate beroa prestatzen hasi ziren. Ordu berean Beldurraren pasabideari azken txukunketak eman zizkioten Irunberri elkartean. Goikoplazako ikuskizunaren ondoren, "Akerrak Okerrak" kalejira Kale Nagusirantz abiatu zen eta, urtero legez, A&B Shows konpainiako kideek atseden hartu zuten Peña Santa Krutz elkartean. Azkenik, taloak jateko eta zerbait edateko aukera izan zen Kotoi elkartean.



Beldurraren pasabideko partaideak, Irunberri elkartean. AIURRI

andoaINDARRA euskaraz



16 urtetik gorakoen irabazleak. AIURRI

Mozorro lehiaketaren lehen edizioa

Gau Beltzaren bosgarren edizioan abian jarri zen mozorro lehiaketa. Arratsaldeko 17:30ean hasita lagun ugari hurbildu zen Goikoplazako photocallera, lehiaketan parte hartu asmoz. Eta, ordubetez, etenik gabe, argazkilaria eta epaimahaia lan eta lan aritu zen. Mozorro gehienak Gau Beltzarekin lotura estua zuten eta, haietako batzuk, maila handikoak ziren.

Sariak iluntzean banatu ziren, Etxeberrieta plazan, kalabazaren lehiaketako sari banaketarekin batera. 16 urtetik beherakoen artean Nora izan zen irabazlea. Ez zen, ordea, bakarrik agertu. Harekin batera argazkian ageri diren lagunak ere bikain mozorrotuta zeuden. Datozen egunotan, Arruti gozotegian, 8 lagunentzat merienda dastatuko dute. On egin!

Helduen atalean, Eli izan zen irabazlea. Hiruko taldea aurkeztu zen lehiaketara, goiko argazkian ikus daitekeenez. Iragarrita zegoenez, Danenan lau lagunentzat otordua irabazi dute. Zorionak!



16 urtetik beherakoen irabazleak. AIURRI



Gazte Lokaleko kideak, Goikoplazan.

Auzolanean prestatzen den ospakizun handia

Herriko eragile eta boluntario askoren laguntzari esker egiten da Andoaingo Gau Beltza

Erredakzioa ANDOAIN

Gau Beltza abiatu zenez gerotik lehen urteetan, bereziki, haurrak eta familiak izan dira ospakizuna ondoen baliatu dutenak. Ez baita gutxiagorako: txokolate beroa, ikuskizuna, beldurraren pasabidea, zezen suzkoa... arratsaldean hasi eta ekitaldi zirraragarri asko kateatzen dira. Hori guztia egin ahal izateko ezinbestekoa da auzolana. Elkarte eta boluntario horiei guztiei esker egiten da Gau Beltza. Ezinezkoa litzatekeelako, bestela. Plazaren segurtasuna, bide-segurtasuna, egitarauaren koordinazioa, txokolatea berotzeko eta zerbitzatzeko nahiz taloak prestatu eta zerbitzatzeko lanak... haiei guztiei eskerrik asko esatea gutxi da.

Andoaingo Batzokia, Irunberri elkartea, Peña Santa Krutz elkartea, Kotoi elkartea, Urki dantza taldea, Maizorri txalapartariak, Lebiton konpartsa, Ludoteka, Gazte Lokala, Urrats, Keinu, Salkin, Andoaingo Udala... eragile horiek guztiak eta Aiurriko eta Larramendi Bazkunako kideak batuta, 60 lagunetik gora dira jaia antolatzen aritu zirenak.

Bosgarren Gau Beltza amaituta, antolatzaileek dagoeneko seigarrena dute buruan.



Uria eta Igarategi, aurtengo irabazleak. AIURRI

Kalabazen pisu zehatzetik, gertu

Bi kalabaza zeuden Etxeberrieta plazan, denen bistara. Ariketa dibertigarria izan zen bertaratu zirenentzat.

Kalabaza txikia
2,50 Kg-ko pisua zuela aurreikusi zuen Uria gaztetxoak. Gertu ibili zen gero! Pisu erreala 2,51 Kg. izan baitzen. Hark eraman zuen Kuttun gozotegiko trentza goxoa.

Kalabaza handia
Tamaina geroz eta handiagoa denean pisuaren aurreikuspena nabarmen areagotzen da. Batzuk urruti samar geratu ziren, beste batzuk pasa egin ziren! Igarategi egon zen gertuen, ia-ia asmatzeraino! 19.20 izan zen bere apustua. Eta, pisu erreala, 19,39 Kg-koa izan zen. Hark eraman zuen Aspilla baserriko saski ederra eta baita kalabaza ere.



2,51 Kg., kalabaza txikiaren pisua.



19,390 Kg., handiaren pisua.



Hiru andoaindar izan zituen bidaide Iginitzek Manaslun: Iñaki Urretabizkaia, Joseba Maiza eta Mikel Maiza. IGIÑITZ

Manasluko zeharkaldia, Euskaldunaren Mendi Astean

Aste Santuan Manaslu mendiaren inguruan gidatu zuen zeharkaldia izango du hizpide Aitor Iginitz andoaindarrak, Bastero Kultugunean. Datorren azaroaren 13an izango da. Andoaingo hiru mendizalek hartu zuten parte zeharkaldi hartan

Xabier Lasa ANDOAIN

Himalaian mendi gidari gisa bizi da Aitor Iginitz Oiartzabal, azken urtetan. Bizikleta albo batera utzi samar daukala dirudi, izan ere, gogoan hartu behar da 2006ko urrian mendebaldeko bizi-baldintza erosoak alde batera utzi eta nola heldu zion, munduan barrena, helmugarik gabeko ibilaldiari.

Orotara, 18 urte egin zituen bidaiari gisa eta denbora tarte horretan Europa, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeaniako 70 herrialde zeharkatu zituen. 140 milatik gora kilometro egin eta munduari hiru bira eta erdi egin ostean, 2024an, Himalaiako lurretan errotu bota behar zuela erabaki zuen. Himalaian trekking-gidaria da geroztik.

Besteak beste, Nepalen, Himalaia mendikatean kokatzen den Manaslu mendiaren parajeetan zeharkaldia prestatu ohi du. Munduko zortzigarren mendirik garaiena da 8.163 metrorekin, eta guztiz preziatua da zeharkaldi hura.

Iginitz adierazi duenez, "15-16 egun irauten du nik antolatzen dudan ibilaldiak. Bira egiten zaio Manaslu mendi osoari, 160 kilometro inguru egiten dira oinez. Bi bailara zeharkatzen dira, Budhi Gandaki eta Marsyangdi. Horien artean zeharkatzen den lepoa Larkya La da, eta 5.107 metroko garaiera du".

Gidatu zuen zeharkaldietako batean andoaindarrak izan ziren eta, irudi bidez, esperientzia hura azalduko du aurtengo Mendi Astean.



Joan den Aste Santuan Manasluko zeharkaldian parte hartu zuen mendizale taldea. IGIÑITZ

Manasluko zeharkaldiaren argazki-proiekzioa

Iginitzek aurtengo Aste Santuko bi asteetan gidatu duen azken zeharkaldia izango du oinarri Bastero Kulturgunean, datorren azaroaren 13an. "Mendia eta natura maite dituztenentzat eta gureak ez diren kulturak ezagutzea gogoko dutenentzat" dela egokia azpimarratu du Iginitzek. Bere emanaldietan gai horien inguruan edozein galdera egitera animatu ohi ditu entzuleak, "zabalik nago urte hauetan ikusi eta ikasi dudana besteei transmititzeko".

Bestalde, emanaldiak arrazoi erantsi bat badaukala erakargarria izateko gaineratu du Iginitzek. Hain zuzen, Andoaingo hiru mendizale, Iñaki Urretabizkaia, Joseba Maiza eta Mikel Maiza izan zituen bidaide orduan.

Manalusko zeharkaldia "esperientzia ezin hobea" dela ziurtatu du Iginitzek. Parte-hartzaileek beren gorputza altuera horietan frogan jartzeko eta ezagutzeko ezin egokia izaten dela ziurtatu du: "ederki ikasten da altuerak ze eragin duen gorputzean, oxigeno falta dela eta".

Era berean adierazi du hara lehenbiziko aldiz joaten diren mendizaleak "Himalaia mendikate izugarriaren dimentsioez harrituta geratzen" direla, "izan ere, glaziarrak eta mendi tontor erraldoiak aurre-aurrean ditugula egiten baitugu ibilbide osoa".

Mendizaletasunean sakontzeko ez ezik, Nepalgo herria ezagutzeko aukera ematen duela ibilaldiak gaineratu du andoaindarrak. "Aproposa da bertakoen bizitza eta kultura ezagutzeko, beraien herrietatik igarotzen baikara".

Gidari gisa urtean hiru trekking egiteko asmoa daukala gogoarazi du Iginitzek. "Aste Santuan lehenbizikoa, Himalaian. Abuztuan, Perura Huayhuasheko trekkinga antolatuko dut. Eta azkenik, azaroan, Everesteko oinarrizko kanpamenduan trekkinga lotuko dut".

Andoaingo Mendi Astea

Azaroak 13, ostirala
"Manasluko zeharkaldia", Aitor Iginitzen eskutik. Bastero Kulturgunean, 19:00etan.

Azaroak 17, asteartea
"Nere mugen gainetik", Josu Merinoren eskutik. Euskaldunaren egoitzan, 19:00etan.

Azaroak 18, asteazkena
Bazkideen batzar orokorra. Euskaldunaren egoitzan, 19:00etan.

Azaroak 19, osteguna
"Baruntse mendiaren deia", Xiril Alvarezen eskutik. Euskaldunaren egoitzan, 19:00etan.

Azaroak 22, igandea
Mendi irteera eta bazkaria Oianume jatetxean.



Ander Elustondo Esteban UKEko eskubaloiko jokalaria omendu zuten aurreko larunbatean, udal kiroldegian jokatu aurreko partidan. UKE URNIETA

Omenaldi sentitua

Udan zendu zen Ander Elustondo Esteban urnietar gaztea eta, ezbeharra izan zenetik, sakona izan da herrian utzi duen arrastoa. Aurreko larunbatean UKE eskubaloi taldeko lagunek omenaldi sentitua egin zioten Egiaren aurkako partidan

Xabier Lasa URNIETA

Eskubaloiko senior mailako taldean 13 zenbakia Ander Elustondo Esteban "Elus"ena zen. Udako ezbeharraren ostean, halako kolpea jasota, haren zenbakia gordetzea erabaki zuten. Hasi zen denboraldia, bikain hasi ere, eta lagunek eta kideek hura gogoan hartzeko ekitaldia antolatu zuten. Haren omenez, 13. zenbakia ez du beste jokalaririk jantziko. Hala, kiroldegiko paretean zintzilik utzi dute haren kamiseta. Profesional mailako kirol taldeentzat, saskibaloian, bereziki, izarren omenez sortutako ohitura da. Elusek arrasto sakona utzi zuen Urnietan eta UKEn eta, bera ere, eskubaloiko komunitatearentzat, betiko gogoan izan nahi duten izarra da.

Partida aurreko ekitaldia soila bezain hunkigarria izan zen. Ohorezko aurrekua dantzatu zuten haren omenez eta, segidan, 13. zenbakia kiroldegiko pareta batean itsatsi zuten. Bertan ziren guztiek txalo egin zuten gogotik.

Bigarren txalo zaparrada 13. minutuan

Behin partida hasita iritsi zen arratsaldeko bigarren une gorena. UKEko senior mutilak eta Egia taldekoak jokoan ari ziren eta, partida 13. minutura iritsi zenean, bi taldetako jokalariek eten egin zuten partida, eta txalo egin zuten minutu batez. Harmailak betetzen zituzten ikusleek ere bat egin zuten keinu samur horrekin.

Dena esatera, omenaldi ekitaldian, Egia taldearen jokabidea eskertzekoa izan zen.

PARTIDA AURRETIK ANTOLATU ZUTEN OMENALDIA SOILA BEZAIN HUNKIGARRIA IZAN ZEN

1. LURRALDEKOA

ESKUBALOIA

Urnieta-Egia	**40-25**
Arrasate-Leizaran	**25-28**

SAILKAPENA

		P	J
1	Soraluze	**13**	**7**
4	Urnieta	**8**	**6**
9	Leizaran	**6**	**7**

ASTEBURUAN

17:15 Txingudi–Urnieta *Artaleku*
18:15 Leizaran–Ordizia *Larunbata*

UKE-REN KRONIKA

Urnietako Guria Jatetxeak garaipen erraza lortu zuen eta sailkapenean laugarren postua sendotu du. Urnietarren hasiera indartsua izan zen, 10 minutuz donostiarrak golik sartu gabe utziz. Atsedenaldira 21-8ko emaitzarekin iritsi ziren. Bigarren zatian, etxekoek minutuak ematen zizkieten hain ohikoak ez ziren jokalariei eta, hala ere, distantziak mantendu egin ziren. Garaipen handia lortu zuten Anderri eskaintzeko.



Lagun ugari elkartu zen Udal kiroldegira. AIURRI



Lau jokalarik ohorezko aurreskua dantzatu zuten partida hasi aurretik. AIURRI



Ander Elustondoren 13 zenbakia zintzilikatuta geratu da kiroldegiko horman. AIURRI



Ikastolako ikasleak, Josu Lekuona eta Ainhitze Arriola irakasleekin. AIURRI

Ikasle gehiagok egin dute bat Ibili Andoain ekimenarekin

OINEZ La Salle Berrozpe ikastetxeko eta Aita Larramendi ikastolako ikasleak batu dira aurtengo ikasturtean

Erredakzioa ANDOAIN

Adineko pertsonak sozializatzeko, elkarren arteko harremanak lantzeko, bizitza osasungarriago bat lortzeko, eta txangoak oinez elkarrekin egiteko asmoz sortutako Ibili Andoain ekimenak saio berri bat egin zuen atzokoan ere, euri langarrari aurre eginez zaintza arloko ikasleek hartu dute parte ekimenean. Aurtengo ikasturtean, La Salle Berrozpe ikastetxeko eta Aita Larramendi Ikastolako ikasleak batu dira ekimenera, hilean behin edo bitan parte hartzeko asmoz.

Aurreko ikasturteetan, herriko elkarteetako ordezkariekin batera, Leizaran Institutuko Ikastolako ikasleak izan ziren atzoko saioan.

Mugikortasun mugatuko taldea ikasleekin Anbrosia Olabide erakinean bildu da bukaeran.



Adin desberdinetako kideak biltzen ditu ekimenak. AIURRI



Mugikortasun mugatuko kideak eta ikasleak Anbrosia Olabide eraikinean. AIURRI



Bergara eta Mendizabal. MASTER CUP

Zorte txarra izan zuen Nora Mendizabalek

PILOTA Lau T'erdiko Txapelketa Nagusian, final zortzirenetan, hatz batean kolpea hartu zuen

Erredakzioa ANDOAIN

Min hartu zuen eta horrek partida erabat baldintzatu zuen. Arrate Bergara zuen aurkaria eta hura da final zortzirenetako langa gainditu duen lehen pilotaria, Itziarren jokatu zen jardunaldian. Partida oso orekatua izan zen erdi aldera arte, baina une horretan andoaindarrak kolpe bat hartu zuen hatz batean eta partida erabat aldatu zen. Aldagelan denbora bat eman ostean, Nora Mendizabal kantxara itzuli zen baina ezin izan zion ordura arteko mailari eutsi. Arrate Bergarak, azkenik, 22-14 gailendu zuen ezinean zebilen Nora Mendizabal.

SASKIBALOIA

GANBARA. EMAITZAK

Rep.Justino JunM–ATSS.	44-79
Ostadar–Plastigaur JunN	72-31
Plastigaur KadN–Ordizia	25-63
ISB–Innovachef KadM	46-66
Eskoriatza–Plastigaur KadN	85-10

GANBARA. ASTEBURUAN

Innovachef KadM–Eibar
Larunbata. 09:00, Andoain.
Plastigaur KadN–BKL
Larunbata. 09:00, Andoain.



Ibilbide ikusgarria egin zuten partaideek aurreko larunbatean. AIURRI

Leitzaran Divide MTB probaren lehen edizioa

TXIRRINDULARITZA Leitzaran bailaran barrena, 90 Km-ko ibilbidea eta 3.200 metroko desnibela zuen probak

Erredakzioa ANDOAIN

Tamainako distantzia eta zailtasuna menderatzen dituen txirrindulariarentzat gozamena da Leitzaran bailaran eta inguruetan aurki daitezkeen parajeak: Otieta eta Leitzaran harana, Adarra-Mandoegi mendilerroa, Gorriti eta Belabieta aldeko basoak...

Aurreko larunbatean egin zen Leitzaran Divide lasterketaren lehen edizioa, proba burutzeko primerako eguraldiarekin.

"Leitzaran Divide abentura-ibilbide bat da, Leitzaran ibaiaren banalerroa zeharkatzen duena. Ingurune basatia da oraindik ere", horrela deskribatu zuten proba antolatzaileek.



Txirrindulari taldea, Otietako Bisitarien Etxera iritsi berritan. AIURRI

Andoainen sarituko dute

Ohorezko mugarria jasoko du Arritxu Iribarrek aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan. Hala erabaki du epaimahaiak aste honetan zabaldu duen oharrean. Kirol kazetaritzan, Euskadi irratian eginiko lanari esker, aski ezaguna da Arritxu Iribar. Azaroaren 20an izango da sari banaketa ekitaldia Bastero Kulturgunean.



AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN, URNIETA Hitzorduak
Egunean bertan, goizez, hitzordua hartu beharko da, 943 007 884 telefonora deituta. Gotatanta.eus webgunaren bidez ere izena eman daiteke.
Andoain: Azaroak 9, astelehena. 16:30-20:15, Osasun Etxea.
Andoain: Azaroak 10, asteartea. 16:30-20:30, Plazido Muxika.

ERAKUSKETAK

ANDOAIN Nekearen teoria
Erakusketa kolektiboa.
Azaroak 12, osteguna.
18:30, Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Lamiaren ispilua"
Kattalinen eta bere lagunen abentura magikoa.
Azaroak 15, igandea.
12:00, Bastero Kulturgunea.

URNIETA Munstro arrosa
Haur eta familientzako antzezpena.
Azaroak 22, igandea.
12:00, Sarobe.

MUSIKA

ANDOAIN DJ erakustaldia
Telmo Trenorren eskutik ikastaroa emango du.
Azaroak 6, ostirala.
18:00-20:00, Gazte Lokala.



Greba Orokorraren deialdia dela eta egun bat aurretatu da sari banaketa ekitaldia.

ANDOAIN Ipuin-lehiaketa
Martin Ugalde ipuin eta gutun lehiaketen sari banaketa ekitaldia.
Azaroak 10, asteartea.
18:30, Bastero Kulturgunea.

ANDOAIN Hainbat
Ben Yart, Nrea eta Oihane Ulanga artistak igoko dira oholtzara.
Azaroak 7, larunbata.
19:00, Bastero Kulturgunea.

ANDOAIN Gaztetxea
Ekitaldi-sorta, azaroan.
Azaroak 6, ostirala:
Geminis Big Member.
Azaroak 7, larunbata:
Hofe eta Bris.
Azaroak 13, ostirala:
Sabdariffa eta DJ AFV.

EKITALDIA

ANDOAIN Oroimen eguna
Elkarbizi taldeak antolatuta.
Azaroak 10, asteartea.
18:30, Lopez de Lacalle parkea.

HITZALDIA

ANDOAIN Oroimen historikoa
Aitor Azurki eta Aitzol Arroyo.
Azaroak 18, asteazkena.
19:00-20:00, Bastero.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Tiempos de ilusion
Azaroak 8, igandea. 19:30.
Azaroak 9, astl. 17:00, 19:30.

La Oveja Shaun: Misión Calabaza
Azaroak 8, igandea. 17:00.



SINOPSIA

Tiempos de ilusion
Zuzendaria: Olivier Nakache, Eric Toledano. **Aktoreak**: Louis Garrel, Camille Cottin, Pierre Lottin, Simon Boublil, Alexis Rosenstiehl, Jeanne Lamartine. **Herrialdea:** Frantzia (2026). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 119 m. **Generoa:** komedia, drama.



Protagonista, nerabezaroaren ateetan

1985a da. Vincent, hamahiru urte betetzear, Parisko auzo batean bizi da, anaia nagusi xelebre batekin eta etengabeko gatazkan dauden gurasoekin. Jada ez da hain umea, baina ezta heldua ere. Filman Vincenten ibilbideari erreparatzen zaio bere bizitzako etapa berezi honetan identitateari, adiskidetasunari, familiari, erlijioari, desioari eta maitasunaren lehen zantzuei buruzko pentsamenduak eta zalantzak azaleratuz. Mundua aldatzeko itxaropena ilusio hutsa ez zen haurtzaroko une bati buruzko komedia dramatikoa da.

Bi musika banda elkarrekin

Sakanako Haize Berriak Musika Banda eta Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda zuzenean ariko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Sakanako Haize Berriak Bandak eta Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak elkarrekin joko dute Basteron, igandean.

Jada Altsasun, urriaren 31n elkar hartuta egin zuten kontzertua bi bandek, Iortia kulturgunean. Zenbait entseguetan landutako kantutegi erakargarria interpretatu zuten, eta entzuleek txalo zarta beroarekin eskertu zieten. "Laguntasuna, musika eta elkartasuna ospatzeko kontzertua" eskaintzeko igo zirela oholtzara adierazi zieten entzuleei bi bandek Basteron ere filosofia horri eutsiko diote.



Sakanako eta Andoaingo Bandetako kideak elkarrekin Altsasun joan den urriaren 31n. SAKANAKO HAIZE BERRIAK BANDA



Inkesta martxan jarri du garapen agentziak. GARAPEN AGENTZIA

Eskualdeko enpresei deia luzatu die Mankomunitateak

Enpresek era eroso batean bete ahal izan dezaten inkesta bat jarri du euren esku

Erredakzioa URNIETA

Beterri-Buruntza Mankomunitatean eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Plana osatzen ari dira eta egitasmoak lurraldeko enpresa eta eragile guztiek dituzten benetako beharrei erantzun diezaien, "funtsezkoa da gaian inplikaturik dauden aktore guztien ahotsak entzutea eta horretarako era erraz batean bete daitekeen inkesta" prestatu dute.

Hainbat dira, garapen agentziaren ustean, diagnostikoa ahalik eta osoena eta parte-hartzaileena izateko Beterri Buruntza Mankomunitatetik aipatzen diren arrazoiak: "hasteko, langileen, prestakuntzaren, digitalizazioaren, belaunaldien arteko erreleboaren edo talentua erakartzearen arloan enpresek dituzten beharrak antzemateko tresna oso egokia izan daitekeela uste dute".

Eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren baitan hartzen diren erabakiek eta martxan jartzen diren egitasmoek eragin zuzena izango dute, aurrerago, enpresengan eta "horregatik garrantzitsua da eragile ekonomikoentzat proiektuan hasiera-hasieratik parte-hartzea".

Mankomunitate eta garapen agentzia honako udalerriek osatzen dute: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Egoitza nagusia Hernanin dute, Akarregi industrigunean.

Inkestan parte hartzeko esteka

QR-an sartuz eskualdeko enpresek inkestan parte har dezakete.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



Aitor Mendiluze. AIURRI

Mendiluze, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan

Final-aurrekoetan murgilduko da andoaindarra, larunbat honetan, Gernikako saioan

Erredakzioa ANDOAIN

Agin Laburu, Aitor Bizkarra, Ane Labaka, Aner Peritz eta Joanes Illarregi izango dira Aitor Mendiluzeren bertsokideak Gernika-Lumoko saioan. Igor Menika ariko da gai-jartzaile lanetan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da saioa, larunbat arratsaldean, Gernika Jai-Alai pilotalekuan. Saioa bertatik bertara ikusi nahi duenak www.bertsosarrerak.eus webgunean erosi ditzake sarrerak.

Azken saioetan Nerea Ibarzabal eta Amets Arzallus gailendu dira eta finalean aritzea dute xede. Helburu bera du Aitor Mendiluzek: 2001etik hona, edizio guztietan, finalean aritzeko sailkatu da. Aurten ere onena eman beharko du.

Gernikako saioan ariko da Joanes Illarregi, hura ere, 2022ko txapelketako finalista.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa azken txanpan sartzen ari da. Gernikoakoa eta gero, Miarritzen, Donostian, Gasteizen eta Bilbon izango dira hurrengo saioak. Finala, aldiz, abenduaren 20an izango da Iruñean. Zazpi bertsolarirentzat dago tokia Nafarroa Arenako oholtza gainean, zain izango baita Maialen Lujanbio aurreko txapeduna. Laugarren txapela lor dezake.



Azken urteotan azoka antolatu du Larramendi Bazkunak. AIURRI

Aukera zabala, azaroaren 14an, Bazkunak antolatutako azokan

Ardo eta garagardo aukera zabala, gazta, barazkiak olioa, kontserbak... dozenatik gora postu izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 14a gerturatzen ari da eta Larramendi Bazkunak prest du azoka berezia. Postu ugariren artean maila goreneko jakiak eta edariak erosteko aukera izango da.

Ardo ekoizleak

Sei dira denera, horietatik lau nafarrak, eta Arabako eta Gipuzkoako ordezkari bana.

- **Bodegas Azpea** Nafarroako Irunberri herrian kokatutako upategi familiarra eta ekologikoa da, Javier eta Gorka Perez anaiek zuzendua.
- **Biurko Gorri** Nafarroako Bargota herrian dagoen upategi ekologikoa da, Rioja Jatorrizko Deiturapeko ardo ekologikoak ekoizten dituena.
- **Bardea Etxaldea** Kiko eta Pablo Fernandez Salinas anaiek gidatutako upategi ekologikoa da, Bardeetako basamortuaren alboan kokatua.
- **Baztango Xurie** Arizkunen sortutako ardo zuri ekologiko eta naturalaren proiektua da, Ana Iriartek eta Iñaki Bengoetxeak sortua.
- Beizamako **Urkizahar** txakolin ekologikoa mikro-mahasti kontzeptuan oinarritzen da.
- **Garcia Huizi** arabarra laugarren belaunaldiko mahatsezain familia baten upategia da.

Garagardo berezia

Hiru dira azokara hurbilduko direnak:

- Iker Etxebeste ohikoa da Bazkunaren azokan. **Karom** markadun edaria dastatzeko aukera izango da Goikoplazan.
- **Basabe Garagardoak** artisau garagardoa ekoizten duen Goierriko kooperatiba txiki bat da
- **Scimmia** Gasteizen gazte batzuek sortutako artisau-garagardo proiektu bat da.

Bi gaztagile

- **Antsonea ardi gazta**, Nafarroako Uztegi herrikoa. Aiurrik hainbat bider zozketatu du haien gaztea eta Santa Krutz jaietan, esaterako, postua jarri zuten.
- **Behieko** Olaberriko Etxeberri Goikoa baserrian ekoizten diren behi-gazta artisau eta ekologikoa da.

Olioa, barazkiak, kontserbak

- **Bardea** etxaldekoek, ardoaz gain, arbequina olio ekologikoa eta almendrak salduko dituzte.
- Artieda herritik dator **Gukalde** ekoizle agroekologikoa da. Kalitate handiko marmelada eta barazki-kontserba ekologikoak ekoizten dituzte bertan.
- **Conservas Ebron** San Adrian herriko kontserba-enpresa ezaguna da, eta bere produktu izarretako bat orburu bihotzak dira. Kontserba hauek oso lotuta daude Errigora ekimen herrikoiari.
- **Bejondeizula barazkiak** Iurretan kokatutako nekazaritza ekologikoko proiektua da. Barazkiak eta kremak salduko dituzte.

Azokan, gainerakoan, egun osoko hitzorduak iragarrita daude.

UDAZKENEKO AZOKA

Azaroak 14, larunbata
Andoaingo Goikoplazan

Goizean eta arratsaldean saski ederrak zozketatuko dira

Ez galdu aukera!

11:00-14:00 Azoka berezia
Euskal Herriko ekoizpena:
ardoa, garagardoa, gazta, olioa, kontserbak...

11:00-13:30 Trena
Goikoplazatik abiatuta, herrian barna bidaia

11:30-13:30 Puzzle lehiaketa
Izen-ematea aldez aurretik

14:30 Paella bazkaria
Tiketak salgai, azaroaren 2tik aurrera Ernaitza, Delgado eta Elizondo tabernan (aukera beganoa egongo da).
Bazkal ostean postrea aukeran
Arrutik egindako "kremazko enborra"

16:30 Toka txapelketa

17:00 Yogurinha Borovarekin bingo musikatua

18:30 Auskalo erromeria taldea

ANTOLATZAILEA:

MARAVENDI

ANDOAINGO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA

LAGUNTZAILEA:

ANDOAINGO UDALA